

Goizuetako Udalbatza, Herriko Etxeko Bilkura Aretoan, **bi mila eta hemezortziko urtarrilaren 30ean** arratsaldeko zazpiak direlarik **ohiko bilkuran** biltzen da ondoren aipatzen diren partaide hauekin:

ITSASO LUJANBIO APEZETXEA
MARIA PILAR APECECHEA ELIZALDE
MARIA JOSEFA AIZPURU SANTESTEBAN
JOSU GARMENDIA RECALDE
DANIEL OYARZABAL LARRABURU

Eta Udaletxe honetako alkatea, UNAI LOIARTE ANSA

Idazkari lanetan, Miriam Arozena San Miguel, Goizuetako ordezkari idazkaria.

Alkateak eguneko aztergai zerrendako lehenengo puntuarekin hasteko agindua eman du

1.-AURREKO AKTEN ONARPENA

Alkateak, eguneko aztergai zerrendarekin banatutako, 2018ko abenduaren 19ko ohiko batzarreko aktan, ia norbaitek aldaketaren bat proposatu nahi ote duen galdetzen die Udalbatzako kideei.

Horrelakorik gertatzen ez denez, Udalbatzak aho batez akta onartzea erabaki du.

2.-GASTUAK ETA DIRUSARRERAK

Alkateak ondorengo fakturak aurkeztu ditu, onartuak izan daitezen

Ordaindu beharrak, helbideratu gabeak

1	EVOLUZIONEA. Urumea arnastu 2016ko faktura	180,77 €
2	EVOLUZIONEA. Urumea arnastu 2017	71,87 €
3	CEBANC. Azaro kulturalerako mazapan eta turroi emanaldia	360,00 €
4	RICARDO GALDEANO. Udalako gasoila	814,13 €
5	CEFERINO APEZETXEA. Mendiko Land Roverrari rotula aldatze lanak	79,19 €
6	GOIEKO. Suhiltzaileen lokaleko garbiketa materiala	193,56 €
7	LEFEBVRE EL DERECHO. Zuzenbide lokala	1.526,23 €
8	AGUSTIN ESCUDERO. ITV pasatzera joan ondorengo hamaikatakooa, suhiltzaileak	10,40 €
9	TXIMELA. Frontoiko teilatua moldatzeko igogailua	199,11 €
10	UNAI LOIARTE ANSA. Kilometrajea urtarriletik abendua bitarte	453,81 €
11	DINDAIA FUNDAZIOA. Goxali egitasmoaren abenduko faktura	738,69 €
12	MADERPLAY. Panelak, posteak.	2.915,50 €

1 3	ADARRA. Mahai tolesgarriak, udal eraikinen konponketetako materialak: brida	1.052,52 €
1 4	DRUCK. Turismo panelak: egurrezko panelak, metro panelak	2.226,40 €
1 5	LUA ARKITEKTOAK. Gaztetxeko memoria baloratuaren faktura	1.089,00 €
1 6	BPXPORT. Abenduko Jumpfit eta Pilates saioak	628,28 €
1 7	LYRECO. Udalako materiala	184,98 €
1 8	JUMPFIT. Tranpolinen alokairua, urtarrilekoa	314,60 €
1 9	HARGOI. Inhumazioa Idurre Abasolo	181,50 €
2 0	LANKU. Harria emanaldiaren faktura	250,00 €
2 1	GESTION AMBIENTAL. Puntu garbia jartzeko txostena	242,00 €
2 2	GESERLOCAL. Abenduko kontabilitate aholkularitza	267,92 €
2 3	TRACASA. Katastro mantenimentuaren azaroko faktura	7.140,26 €
2 4	TRACASA. Katastro mantenimentuaren abenduko faktura	4.552,75 €
2 5	GESERLOCAL. Bilketa ejekutiboaren 4. hiruhilabeteko errekareruak	148,54 €
2 6	ZAPIRAIN LAGO S.L. Berogailuen mantenimentua, 1. hiruhilabetekoa	484,87 €
2 7	CORREOS. Abenduko korreo gastua	19,45 €
2 8	RICARDO GALDEANO. Eskolako gasoila	446,40 €
2 9	DINDAIA FUNDAZIOA. Goxali egitasmoaren urtarrileko faktura	738,69 €
3 0	CAMPOS GARBI. Arratoi hiltzeko tratamenduaren kontratua	1.756,33 €
3 1	ZUBI-ONDO. Artikutzako trenaren ibilbidea ondorengo bazkaria, Suberri	26,00 €
3 2	KOPY LEKU. Fotokopiadoran mantenimentua	208,35 €

Ordaindu beharreko gastuak: 29.502,10€

Udalbatzak gastuak aztertu ondoren helbideratu gabeko fakturak ordaintzea eta helbideratuak onartzea erabaki du aho batez, salbu Evoluzionaren 180,77€tako eta 71,87€tako faktura

Gastu helbideratuak

1	BIDANE HUICI ANTON. Xalto eskolaren garbiketa lanak, abendukoa	1.576,12 €
2	MARISOL APEZETXEA. Udal eraikinen garbiketa lanak, abenduko faktura	1.007,22 €
3	ADARRA LAN TRESNAK. Zinta txuri-gorria	65,33 €
4	IDOIA LEGARRETA. Iraileko aholkularitza zerbitzua	610,56 €
5	IDOIA LEGARRETA. Urriko aholkularitza zerbitzua	610,56 €

6	IDOIA LEGARRETA. Azaroko aholkularitza zerbitzua	610,56 €
7	IDOIA LEGARRETA. Abenduko aholkularitza zerbitzua	610,56 €
8	IDOIA LEGARRETA. PIL. Udaleko igogailuaren txosten baloratua.	530,00 €
9	IDOIA LEGARRETA. Plan Orokorraren aldaketa	636,00 €
10	ORTIZ DE ELGUEA. Abenduko aholkularitza	218,45 €
11	SUBERRI MATELO. Artikutzako trenaren ibilaldiko fotokopiak	44,40 €
12	J.R. JIMENEZ. Katarrapikaka saioko eztiak	48,00 €
13	JESUS MARI APEZETXEA. Katarrapikaka saioko joareak	377,52 €
14	FERNANDO GOIA. Mendiko Land Roverrari gasoila. Abenduaren 14ean.	40,00 €
15	ALAIN GOIZUETA. Txinoko farolen merkuriozko lanparak	72,12 €
16	IÑAKI BARRENETXEA. Feria eguneko azinda garraiatze lanak	363,00 €
17	JUAN ANTONIO LEKUONA. Katarrapikaka saioko materiala	43,95 €
18	TUV RHEILAND. 6772-BSH ibilgailuaren ITVa	45,75 €
19	GOIZUKOOP. Suhiltzaileen ibilgailuen gasoila	244,48 €
20	GOIZUKOOP. Anbulantziaren gasoila	76,91 €
21	GOIZUKOOP. Udalako ibilgailuen gasoila	59,04 €
22	GAS NATURAL. Medikun etxe zaharreko gasa	25,11 €
23	ALLIANZ. Jubilatuen elkarteko lokaleko aseguruia	399,80 €
24	IMQ PREBENTZIOA. Arlo teknikoaren 4. hiruhilabeteko faktura	550,62 €
25	OIHANA INSAUSTI. Eskulanak ikastaroaren abenduko faktura	356,25 €
26	CEDERNA GARALUR. 2018 urteko kuotaren %60a	2.179,65 €
27	MENDIALDEA MANKOMUNITATEA. Udala, Etorki, Medikuzarri zabor tasa	135,54 €
28	MENDIALDEA MANKOMUNITATEA. Suhiltzaileen lokaleko zabor tasa	39,12 €
29	MENDIALDEA MANKOMUNITATEA. Eskolako zabor tasa	150,63 €
30	GIZARTE SEGURANTZA. Azaroko gizarte segurantza	4.285,57 €
31	GOIENER. 2017/12/14tik 2018/01/24ra	3.089,11 €
32	VODAFONE. 2017/12/14tik 2018/01/24ra	783,58 €
33	MOVISTAR. 2017/12/14tik 2018/01/24ra	622,09 €

Helbideratutako gastuak: 20.507,60€

Gastuak guztira: 50.009,70€

Ondoren, Alkateak, diru sarreren berri eman du

DIRUSARRERAK

ERRENTAK. Udal eraikinen errenta, urtarrilekoa	225,49 €
ZERGADUNAK. Ibilgailu berrien gaineko zerga	273,74 €
ZERGADUNAK. Kontribuzioa. Helbideratu gabeak	87,12 €
ZERGADUNAK. Tasak. Helbideratu gabeak	166,46 €
ZERGADUNAK. Obra, eraikuntza gaineko zerga	146,30 €
ZERGADUNAK. Mendi pisten erabilera	632,16 €
ZERGADUNAK. Gimnasio kuota	25,00 €
BASAUNTZ EHIZA ELKARTEA. 2017-2018 denboraldiko kuota	10.667,99 €
ZENBAITZUK. Artikutzara joateko autobusaren ticketak	20,00 €
ARANOKO UDALA. Eskolako gastuak	7.839,20 €
ARANOKO UDALA. Idazkariaren gastu konpartituak	7.517,33 €
GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA. Greziako hitzaldiaren dirula.	100,00 €
EUSKARABIDEA. Euskara bultzatzeko dirulaguntza	1.097,04 €
NAFARROAKO GOBERNUA. Suhiltzaileen gastu orokorren dirulaguntza	22.614,79 €
NAFARROAKO GOBERNUA. Suhiltzaileen inbertsioen dirulaguntza	713,08 €
NUKF. Viesgo. 3 hiruhilabeteko tasa	3,46 €
NUKF. Gas Natural Fenosa. 3 hiruhilabeteko tasa	13,89 €
BIDANE HUIZI. Kontserjearen etxeko argi indarra	36,27 €
ANDONI LIZARRALDE. Abenduko eta urtarrileko salmenta, 2 egun.	12,00 €
JOSUNE NARBARTE. Dantzatako lokalaren erabilera	115,00 €
GESERLOCAL. Abenduko bilketa ejekutiboa	21,50 €
GESERLOCAL. Bilketa ejekutiboa 34105633, 15991567 expedienteak.	995,76 €
ZUBIMUXU. Aterpeko egonaldiak, azarokoak	948,00 €
ZUBIMUXU. Azaroko egonaldiak, Obramas	782,00 €
ZUBIMUXU. Aterpeko egonaldiak, Zaztaparrak taldea	430,00 €
ZUBIMUXU. Aterpeko egonaldiak, Viacron	226,00 €
ZUBIMUXU. Aterpeko egonaldiak, abendukoak	663,00 €

Guztira dirusarrerak: 56.372,58€

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da, eta onartu egin ditu aho batez.

3.-INFORMAZIOA

3.1.- MENDIALDEA MANKOMUNITATEA. Garapen Agentea

Mendialdea Mankomunitateak, 2017ko urtarriletik azarora (11 hilabete) bitarteko Garapen Agentearen kostua mankomunitateak ordaindu duenez,

jakinarazi du zenbat izan den guztira, Goizuetako udalaren kasuan, 2.894,60€ izan delarik. Kantitate hau kobratzea ere ebatzi du.

Epealdi honetan, Garapen Agentea, Mendialdeko langilea izan da, eta abendutik aurrera Cederna Garalurkoa izatea pasa da.

Aldiz, Cederna Garalurrek, Udalei kobratu dien kuotetan Garapen Agentearen kostua sartu du naiz eta bere langilea ez izan Garapen Agentea, eta Garapen Agenteagatik kobratu duena, gastua egin duen Mendialdea Mankomunitatearekin likidatu beharrean, nahiago izan du, zerbitzua jaso duten udalerriekin likidatu, 2017ko uztailean kobratutako kuotan deskontua eginez, Garapen Agentearen 6 hilabeteko kostuari dagokiona, eta 2018ko kuotan, likidatzeko gelditzen diren bost hilabeteei dagokiona deskontatuz

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.2.-IBON ELIZEGI NARBARTE. Suhiltzaile taldeko arduradun kargu uztea.

Ibon Elizegi Narbartek, 2017ko abenduaren 27ko posta elektronikoko bidez, urtarrilaren 1etik aurrera Goizuetako suhiltzaile bolondresen taldeko arduradun lanak egitez utziko dituela adierazi du.

Aldi berean Ibon Elizegik, arduradun kargu uzte honen jakinaren gainean jarri du Babes Zibileko Zerbitzua, eta ordezkoko pertsonaren berririk eman ez duenez, Zerbitzu honetatik, Goizuetako Udalarari eskatu zaizkio ordezkatuak duen pertsonaren datuak,

Zerbitzuak Ibon Elizegik naiz eta arduradun kargua utzi, suhiltzaile bolondres jarraitzen duela ulertu du.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.3.-NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOA.

Gainbalioaren gaineko zergan izandako aldaketari buruz eta egiteko dauden likidazioei aplikatu beharreko trantsizio araubideari buruzko informazio-zirkularra jaso da, NUKFa- bidalita.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.4.-MENDIALDEA MANKOMUNITATEA.

Mendialdea Mankomunitatetik bilera deialdia egin da urtarrilaren 31rako Leitzako Udaletxean, arratsaldeko 6´tan.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.5.-GARAPEN AGENTEA

Elena Irigoien garapen agenteak, Hiri erabilerarako uraren ziklo integralaren Plan Zuzentzailearen inguruan, partehartze prozesuaren baitan egingo diren zonaldeko bileren berri eman du.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.6.-HAUTESKUNDE BATZORDE ZENTRALA.

Hauteskunde Batzorde Zentraletik jakinarazten da, Zuriñe Lujambio Zabala zinegotziaren ordezkoko den Unai Miranda Berroetaren zinegotzi kargu ez hartzea, udaleko idazkari aurrean egin beharreko agertarazpen pertsonal bidez egin behar dela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.7.-LANDA GARAPEN, INGURUMEN ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO DEPARTAMENTUA. Inguru Naturaleko Zerbitzua.

Ingurumen eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendari Nagusiaren 2017ko abenduaren 5eko 652 zenbakidun Ebazpenaren bidez, 2017/2018 mendi kanpainako diru-laguntzak ebatzi dira. Goizuetako Udalaren kasuan, 88.452,40€tako aurrekontua onartu dute eta 65.530,69€tako diru-laguntza onartu. Lanak egin ondoren egingo da diru-laguntzaren likidazio ordainketa.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.8.-GARAPEN AGENTEA

Elena Irigoien, Garapen Agenteak, joan den abenduaren 21ean, Nafarroako Gobernuak, Nasertic eta Toki Ekintza Taldeen artean, Cederna Garalurrek egindako bileraren berri eman du. Bilera honetan 2016-2020 aldirako Banda Zabaleko Plan Zuzentzailearen aurrerapenen berri eman zen, toki erakundeentzako bi gai interesekoekin:

-Eskaera toki erakundeek, estaldura-arazoak dituzten eremuei buruzko informazioa eman dezaten

-Belaunaldi berriko banda zabaleko sareak zabaltzeko proiektuen inguruan baldintza-orriak idazteko eta balorazioa egiteko lankidetzak Nafarroako Gobernuarekin.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.9.-MENDIALDEA MANKOMUNITATEA

Mendialdea Mankomunitateak bilera deialdia egin zuen, mankomunitatea osatzen duten udalerritako Ehiza Elkarteak eta udaletako ordezkariak bildu nahirik, edukiontzitan azaldu diren ehiza animalia hondakinen gainean tratatzeko. Bilera urtarrilaren 18an izan zen, arratsaldeko 7`tan, Leitzako Udaletxean

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

3.10.-INGURUMEN ETA LURRALDEAREN ANTOLAMAENDUKO ZUZENDARITZA NAGUSIA. Toki Agenden eta Lankidetzaren Bulegoa

Toki Agenden eta Lankidetzaren Bulegotik, datozen egunotan Nafarroan "Tokiko Agenda 21ak" egiteko diru-laguntzen deialdia argitaratuko dela jakinarazi da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.11.-NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOA

NUKF-ak lizitazio elektronikoaren plataformari buruzko formakuntza saioen berri eman du, aldi berean plataformari buruzko gida ere igorri du.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.12.-NAFARROAKO ESTATUTKO DELAGAZIOA

Nafarroako Estatuko Delegaziotik jakinarazi da, 2018tik aurrera, su artifizial ikuskizunen baimen eskaerak telematikoki egin beharko direla.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.13.- HERNANIKO KRONIKA

Hernaniko Kronikatik, 2017 urteari dagokion likidazioaren berri eman dute.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.14.-UEMA. Teknikarien antolamendu berria.

Uematik jakinarazi da, 2018tik aurrera teknikarien antolamendu eta funtzionamendu berria zein izango den. Orain arte bi bloketan funtzionatzen zuen Uemako talde teknikoak. Bloke batek udalera begira egiten zuen lana, eta besteak herrira begirako plangintzan, udalek bi teknikari zituztelarik. 2018tik aurrera blokeka funtzionatu beharrean, udalerrika edo eskualdeka funtzionatuko du Uemako teknikarien lantaldeak, udal bakoitzak teknikari bakarria izango duelarik, berarekin garatuz, udalerrian euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko plan osoa

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.15.-ANDRES NARBARTE "XALTO" GOIZUETAKO ESKOLA PUBLIKOA. Eskola Kontseilua

"Xalto" Ikastetxe Publikotik, Eskola Kontseilurako deialdia egin zen urtarrilaren 18rako, eguerdiko 14.15tan

Udalbatza jakinaren gainean zegoen

3.16.-UDALBILTZA

Udalbiltzak, ez-ohiko kontseilu nagusirako deialdia egin zuen urtarrilaren 26rako, arratsaldeko 5`tan, Oiartzungo Kultur Etxean.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

3.16.-TOKI ADMINSTRAZIOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA.

Toki Administrazioko Zuzendaritza Nagusiaren 2017ko abenduaren 29ko 770 zenbakidun ebazpen bidez, Goizuetako Zaborteigiko obrarako onartutako diru-laguntzaren gastua modu honetan egotziko dela Nafarroako Gobernuaren aurrekontuetan: 2017ko aurrekontuei, 418.677,90€ egotziko zaizkio, eta 104.669,47€ 2018ko aurrekontuei.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.17.-TOKI ADMINSTRAZIOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA.

Toki Administrazioko Zuzendaritza Nagusiaren 2017ko abenduaren 27ko 659 zenbakidun ebazpen bidez, Goizuetako Zaborteigiko obraren erdia egin denez, onartutako diru-laguntzaren bigarren %40a ordaintzeko agintzen da, hau da 209.338,95€.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.18.-LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO, BARNE ETA JUSTIZIA DEPARAMENTUA. Gai Adminstratiboak eta Langileria kudeatzeko Atala.

Barne Zuzendari Nagusiaren 2017ko azaroaren 28ko 359 zenbakidun ebazpenaren bidez, 23.327,87€tako diru-laguntza ordaintzeko agindua eman da Goizuetako udalaren alde, suhiltzaile bolondresen gastu orokorrak eta inbertsio gastuak ordaintzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.19.-EUSKARABIDEA. Euskararen Sustapenenaren eta Plangintzaren Zerbitzua.

Euskarabideako Zuzendari Kudeatzailearen 2017ko abenduaren 14ko 74E ebazpenaren bidez, udal esparruan euskara erabiltzeko eta sustatzeko 2017 urteko diru-laguntzak banatzeko deialdiaren ordainketa ebatzi da. Goizuetako Udalaren alde 1.097,04€ ordaindu dituzte.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.20.-NILSA

Nilsatik jakinarazi da, 2018ko saneamentu kanonaren tarifak ez direla aldatu eta 2017ko berdina mantenduko direla.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.21.-KULTURA, KIROL ETA GAZTERIAREN DEPARTAMENTUA. Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua.

Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak gonbidapena luzatu du, 2017ko Nafarroako Kirol Sarien aukeraketa prozesuan parte hartzeko. Proposamenak egiteko epea urtarrilaren 18arte zen eta banatu behar diren sarien zerrendaren berri ere eman du.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

3.22.-RED NELS

Red Nels-etik, azken urte eta erdian, Nafarroako Klima aldaketari buruz egindako eztabaiden eta hausnarketan ondoren, laburbilduma egingo da. Horretarako abenduaren 18an Iruñean eta abenduaren 19an Tuteran, parte-hartze prozesuan jasotako ekarpenak aurkeztuko dira: Nafarroako tenperatura eta prezipitazioen eboluzioaren inguruko berritasunak eta Nafarroako klima aldaketaren ibilbide orria martxan jartzeko eman beharreko urratsak.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

3.23.-ZIAURRIZKO KONTZEJUA

Ziaurrizko Kontzejuan errepide nagusia herritik pasatzen denez, eta ibilgailuen ibilera eta pertsonena uztartu nahirik, eta 787/2001 Foru Legeak arautzen dituen jarduerak mugatuak direnez, lege aldaketa eskatu nahi du. Hori dela eta Goizuetako Udalera beste udalerrri askotara bezala, legearen aldaketa egoki iruditzen bada, babes idatzia sinatzeko eskatu du Ziaurrizko Kontzejuak.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

4.-ESKAERAK

4.1.ENRIQUE MIRANDA GARCIA. Asistentzia kontratuaren deuseztapen eskaera.

2011ko martxoaren 15ean, Goizuetako Udala eta Enrique Miranda Garcia arkitektoaren artean "Asilo Hospital San Miguel" eraikiaren birgaitze obra proiektuaren idazketa eta zuzendaritza asistentzia kontratua sinatu zen, aurretiaz, 2.063,89€tako fidantza jarriaz.

2011ko maiatzean dagokion proiektua entregatu zen Udalean. Udal honek kontratuak zioen bezala, proiektuaren idazketarekin, kontratuaren erdia ordaindu zion, 30.442,25€, 2011ko ekainaren 30ean

Aldi berean, udalak hala eskatuta, 2011ko azarotik 2014ko otsaila bitartean proiektu eguneratuak aurkeztu ditu arkitektoak udalean Anexo I, Anexo II eta Anexo III izenarekin hurrenez hurren.

2014 urte ezkerostik gaur egun arte, arrazoi desberdinak direla medio, udalak ez du oraindik erabaki proiektua egikaritu behar duen edo ez.

2017ko abenduaren 15eko idatzi bidez, Enrique Miranda Garcia arkitektoak, udalarekin izandako hainbat bilera ondoren, ulerturik udalaren intentzioa obra ez egitea dela, asistentzia kontratuaren deuseztapena eskatu du, dagokion fidantzaren itzulera eskatuz. Idatzi honetan, baita adierazten du, ulertzen duela teknikoak, (hau da berak), ez duela inongo erantzukizunik kontratu ez betetze honetan, eta ez diola inolako kalteordainik eskatuko Udalari.

Aurretiaz, 2016 eta 2017an zehar, posta elektronikoko bidez adierazi dio Udalari bi alderdien akordio bidezko kontratuaren deuseztapena litzakeela irtenbide egokiena.

Aurrekin hauek kontutan izanik, eta Nafarroako 6/2006 Kontratu Legearen 124 c eta 181b artikuluetan oinarrituta, udalbatzak aho batez erabaki du:

1.Goizuetako Udalak Enrique Miranda Garcia arkitektoarekin duen "Asilo Hospital San Miguel" eraikiaren birgaitze obra proiektuaren idazketa eta zuzendaritza asistentzia kontratua, bi alderdien arteko adostasunez deusezteza, udalak ez duelako erabaki oraindik nola egikaritu behar duen proiektua.

2.Kontratua sinatu aurretik jarritako bermea Enrique Miranda Garciari bueltatzea, hau da 2.063,89€

3.Akordio honen berri interesatuari ematea, egoki diren ondorioak sor ditzan.

4.2."GURASOAK" GURASO ELKARTEA. 2018ko Iñauteritako eskaera

Ainara Narbarte, "Gurasoak" Guraso Elkartearen izenean, 2018ko Iñauterien antolaketa dela eta udalari honakoa eskatzen dio:

Eguraldi ona egiten badu:

-Goizeko 10taik arratsaldeko 7ak arte herriko plaza erabiltzeko baimena, luntxa, dantza eta merendola egiteko

-Eguerdiko 12tatik bazkaldu arte, herriko kaleak erabiltzeko baimena, desfilea egiteko

-Suhiltzaileen Land Rover-a musikako ekipoa eramateko (musika ekipoa erabiliko da)

-4 Itxafero jaiei hasiera emateko.

Eguraldi txarra egiten badu: Goizeko 10tatik bazkaldu arte Eskolako frontoia erabiltzeko baimena

Eskaera aztertu ondoren, udalbatzak aho batez erabaki du:

1.Desfilea egiteko herriko kaleak erabiltzeko baimena ematea

2.Suhiltzaileen Land Rover-a erabiltzeko baimena ematea, beti ere bestelako premiazko behar bat sortu ezker herrian, sortutako premiak lehentasuna izango duelarik. Land Rover-a gidatu behar duen pertsonak BTP gida baimena eduki beharko du edota udal langile bat edota ordezkari bat izan beharko du. Erabilera honetan edozein ezbehar gertatu ezker, eskatzaileen erantzukizuneko izango da.

3. Musika ekipoen erabileraren jakinaren gainean gelditzen da udala

4.Plaza edota bere kasuan Eskolako Pilota Plaza erabiltzeko baimena ematea, beti ere erabili ondoren garbiketa egin beharko da eta erabilitako lekua baldintza egokietan utzi beharko da.

5.Itxaferoak antolatzaileen esku jarriko ditu Udalak. Dagokion babes eta bestelako neurriak behar bezala hartu beharko dira inolako ezbeharririk gerta ez dadin

4.3.ARABA EUSKARAZ. Diru-laguntza eskaera

Araba Euskaraz Elkartea eta Bastida Ikastola, Araba Euskaraz 2018 antolatzaileak, Goizuetako Udalera zuzentzen dira, datorren ekainaren 17an Araba Euskaraz 2018 jaia ospatuko dela adieraziz, eta bide batez diru-laguntza eskaera egiten da.

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren aho batez erabaki du, eta beti ere eskaera honen arrazoia bultzatzen duela jakinaraziz, diru-laguntzarik ez ematea.

4.4.UMORE ONA ELKARTEA. Azoka eraikiaren kontserbazio eta mantenimendu lanak egiteko eskaera.

Umore Ona Elkarteko Lehendakaria den Izaskun Makazaga Arratibel, Goizuetako Udalera zuzendu da eta adierazi du, udalaren jabetzapekoa den teilatuan dauden itoginen ondorioz, elkarteko sabai teknikoko lauzak behin eta berriz, eta gero eta sarriago, behera erortzen direla; egoera hau elkartera joaten diren pertsonentzako arrisku fisiko bat izan daitekeelarik.

Udal Hirigintz Planaren araudiko 28. artikuluan, eta katalogoko 6.artikuluan (E3 fitxan) oinarrituta, udalaren araudi propioaren betebeharrean eta batez ere pertsonentzako arrisku egoerak ekiditeko, azoka eraikiaren kontserbazio eta mantenurako beharrezko diren obrak egiteko eskatu zaio Goizuetako Udalari.

Udalbatzak eskaera aztertu du eta aho batez erabaki du, Udalak itoginak konpontzeko dagokin lanak egingo dituela, eta etorkizunera begira, kontserbazioari buruz tratatzeko, elkartearekin bilduko da udala, bien alderdien artean aztertzeko ze lan egin behar diren, ulerturik doako zesioa kontratuaren ondotik, bi alderdiek erantzukizun konpartitua dutela eraikiaren gainean.

4.5.MOZORROAK 2018

Olatz Zabala Narbarte, 2018ko Inauteritako Mozorro Taldearen izenean Goizuetako Udalera zuzentzen da, Udaletxeko alboan, karpa jartzeko baimena eskatuz, musika ekipoa (udaletxe barruan edota kaldera gelan) gordetzeko baimena eskatuz, eta itxaferoak eskatuz

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren aho batez erabaki du:

1-Udaletxe alboan karpa jartzeko baimena ematea. Montatze eta desmontatzearen ardura eskatzaileena izango delarik, beti ere bertako etxeetako sarrera bidea oztopatu gabe, afektatutako jabe partikularrak jarri ditzaken eragozpenak salbu, eta anbulantziaren sarbidea oztopatu gabe, Herriko Etxeko ezkeraldeko arkua libre utzi beharko delarik

2.-Musika ekipoa gordetzeko udalak leku bat ahalbidetuko.

3-Itxaferoak antolatzaileen esku jarriko ditu udalak. Dagokion babes eta bestelako neurriak behar bezala hartu beharko dira inolako ezbeharririk gerta ez dadin

4.-Edozein ezbehar gertatu ezker, eskatzaileen erantzukizuneko izango da.

4.6.MERTXE HUIZI ANTON. Elurte garaian baserrietako bideen garbiketa.

Mertxe Huizi Anton, 2018ko urtarrilaren 8ko idatzi bidez, Goizuetako Udalera zuzendu da, urtarrilaren 6ko elurtearen ondoren, eta ulerturik, udalak duen bide garbiketa protokoloa ahal den egokiena egin dagoela, baserrietako bideak berdintasun berarekin garbitzeko eskatu du, bide batzuei besteei baino preferentzi gehiagorik eman gabe.

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren, aho batez erabaki du, eskatzaileari gogoraztea, suhiltzaileak bolondresak direla eta egiten duten lan guztia eskertzekoa dela. Denen erantzukizuna dela gure inguruak txukun mantentzea, urtarrila hasierako elurtean suhiltzaileek, makinak posible izan zuten neurrian ahal zuten guztia egin zutela, eta protokoloa jarraitzen saiatu zirela.

Udalak konpromisoa hartzen du aipatutako protokoloa aztertzeko.

4.7.-KILOMETROAK 2018. Dirulaguntza eskaera.

Urretxu-Zumarraga Ikastolak, Goizuetako Udalera zuzendu da, 2018ko urriaren 17an Kilometroak 2018 jaia ospatuko dela adieraziz. Hau dela eta, dirulaguntza eskaera egiten dio Goizuetako Udalari

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren, eta beti ere eskaera honen arrazoia bultzatzen duela jakinaraziz, aho batez erabaki du diru-laguntzarik ez ematea.

4.8.-NAFARROA OINEZ 2018. Diru-laguntza eskaera

2018 Nafarroa Oinez Jaiaren antolatzaileek, 2018 Nafarroa Oinez jaia Altsasun, 2018ko Urriaren 21ean ospatuko dela adierazi dute; idatzi berean Goizuetako Udalari diru-laguntza eskaera egin zaio.

Idazkariak udalbatza ohartarazten du, Azaroaren 17ko 38/2003 diru-laguntza Orokorraren Legeak agintzen duen moduan, diru-laguntzak zuzenean onartzeko, aurrekontuan hala izenduak egon behar dutela eta dagokion hitzarmena sinatu behar dela onuradunarekin. Goizuetako udalaren aurrekontuan badago halako aurreikuspena eta dagokion hitzarmena sinatu beharko litzake

Udalbatzak, eskaera aztertu ondoren eta idazkariaren ohartarazpenaren jakinarekin gainean, aho batez erabaki du, 2018ko Nafarroa Oinez jaiaren alde 100 €ko diru-laguntza ematea.

4.9. TTAPI TTAPA. 2017 urteko jarduera txostena eta 2018 urterako dirulaguntza eskaera.

Ttapi-Ttapa fundazioak, 2017ko jarduera txostena eta 2018rako aurrekontua aurkezten du Goizuetako Udalean. Aldi berean Goizuetako Udalak aurrekontu hauekiko egiten duen dirusarrera, 3.433,98 € direla adierazten da, dirulaguntza kantitate honen eskaera eginez.

Idazkariak udalbatza ohartarazten du, Azaroaren 17ko 38/2003 diru-laguntza Orokorraren Legeak agintzen duen moduan, diru-laguntzak zuzenean onartzeko, aurrekontuan hala izenduak egon behar dutela eta dagokion hitzarmena sinatu behar dela onuradunarekin. Goizuetako udalaren aurrekontuan badago halako aurreikuspena eta dagokion hitzarmena sinatu beharko litzake

Udalbatzak, eskaera aztertu ondoren, aho batez erabaki du, 3.433,98€ ordaintzea.

4.10. HARRIXURIETA, FRANTSESEN GURUTZEA, ANIXAR, BEILEKU ETA BASAKAUNDI PARAJEETAKO MENDI USTIAPENAREN EPE LUZAPENA

Ibai Segurola, Eguranga SL enpresaren izenean, ateratzen ari diren mendiaren ustiapenaren epe luzapena abenduaren 31ean bukatzen zaiola eta , beste hiru hilabeteko epe luzapena eskatu du , ustiatzeko falta zaion Arritxurieta parajeko puska bat bukatzeko, erabilitako mendi bideak errepasatzeko, egurra dagoen parke inguruak txukuntzeko eta adostutako lanak burutzeko.

Mendi Kudeaketako Atalak onartu egin du eskatutako epe luzapena, ustiapenaren azken luzapen bezala, 2018ko maiatzaren 31 arte.

Aipatutako mendia ustiatzeko, subasta bidezko salmenta arautzen duen plegu administratiboaren 15. klausulak honakoa dio: *“Exekuzio epean berandutzeagatik, edo prorroga eskatzeagatik, ezarriko den isuna honakoa izango da:*

-esleipen prezioaren %2a, lehen sei hilabeteetan

-esleipen prezioaren %10a, hurrengo sei hilabeteetan”

Eguranga SL enpresari aurretiaz era epe luzapenak eman zaizkio, sei hilabete baino gehiagokoak. Ondorioz, Idazkariak adierazten du aipatutako 15. Klausula horren arabera, %10eko isuna-errekargoa aplikatu beharko litzatekeela.

Guzti hau kontutan izanik, eta idazkariaren ohartarazpenaren jakinaren gainean, udalbatzak aho batez erabaki du,

1.Eguranga SL-ri, Harrixurieta, Frantsesen Gurutzea, Anixar, Beileku eta Basakaundi parajeetako mendi ustiapenerako **2018ko maiatzaren 31 bitarteko azken epe luzapena** onartzea.

2.Epe luzapen honengatik, 15.164,80€ ordaindu beharko dituela Eguranga SL-k isun/errekargo modura. Ordainketa hau udalaren kontuan egin beharko da, hilabeteko epean.

4.11.JOSE MIGUEL APECECHEA SALABERRIA. Domiña atariko bidea libre edukitzeko eskaera.

Jose Miguel Apecechea Salaberria Goizuetako Udalera zuzendu da, eta adierazi du, joan den abenduaren 18an arratsaldeko 4tan, Domiña baserriko ataritik pasatzen den bide publikoan, Discovery todo terrenoa zegoela pasabidea mozten zuela. Hogei minututan bozina joka egon ondoren, Alkateari deitu behar izan ziola pasabidea bideratzearen.

Jose Miguel Apececheak eskatzen du, bide publiko izanik Domiña Baserri aurretik pasatzen dena, bere garaian herriak hormigonatutakoa, libre egotea, bertatik pasa behar dutenentzat.

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren, aho batez erabaki du:

1.-Domiña Baserriko jabeei jakinaraztea, baserri aurretik pasatzen den bidea publikoa dela eta irekia mantendu behar dela, beste pasabide alternatiboak egon arren.

2.-Jose Miguel Apecechea Salaberriari akordio honen berri ematea.

4.12.ANXO ALBISU SANCHEZ. Idoiko Manga zabaltzeko eskaera

Anxo Albisu Sanchez, Goizuetako Udalera zuzendu da eta adierazi du, Idoiko abereen egungo manga txikia dela duen abere kopuruarentzako, betizuak bata besteei kalte egiten diote eta sortzen den loiarengatik txokor

txikien bizitza arriskuan jartzen dela. Horregatik manga zabaltzeko baimena eskatu du, beste 5000 metro karratu gehiago. (2 poligonoko 233 partzelan)

Udalbatzak eskaera aztertu eta norbaiten iralekua izan daitekeela kontutan izanik, aho batez erabaki du, ondorengo alternatibak proposatzea Anxo Albisuri:

1.-Goizuetako Iralekuen Hitzarmena egin arte itxoitea, eta egiaztatzen bada herrilurra gelditzen dela, udalak lurraren erabilera baimentzeko aukerak baloratuko ditu.

2.-Iralekua baldin bada, aprobetxamendu eskubidea duen pertsonaren baimena aurkeztu beharko da udalean

3.-Iralekua ez baldin bada, hau horrela dela frogatzen duten egiaztagarriak aurkeztu beharko ditu Goizuetako Udalean.

4.13.MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA. Leitzalarreko Unaiak Liburua. Diru-laguntza eskaera.

Manuel Larramendi Kultur Bazkuna Goizuetako Udalera zuzendu da, Patziku Perurenak egin duen "Leitzalarreko Unaiak" ikerlana liburu batean jaso behar dutela eta 50 liburu erosteko eskaintza egin zaio Goizuetak Udalari, 25€tan liburu bakoitza.

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren, Patziku Perurenaren lana gorai patuz, aho batez erabaki du, 200€ri dagozkion liburuak erostea, hau da 8 liburu.

4.14.JOSU NARBARTE ETXEGIA ETA GARBIÑA MAKAZAGA OTXANDORENEA. 2 Poligonoko 138 eta 12 partzelen arteko mugen aldaketa.

Goizuetako Udalak, 2013 urtean, 2 poligonoko 12 partzelan, Josu NARBARTE Etxegia eta Garbiñe Makazaga Otxandorenak eraiki duten etxe berria katastroan alta eman nahi izan du. Eragiketa honetan, 138 zenbakia duen eta komunala den partzela eta 12 zenbakia duen partzelen arteko muga errealitatera egokitu behar izan da. Hau dela eta Nafarroako Gobernuko Herrilurretako Atalari dagokion txostena eskatu zitzaion 2013an.

Txosten hau 2018ko urtarrilean jaso da Goizuetako Udalean, eta aldeko txostena da, proposatu den katastro aldaketa onartzen du. Txostena urtarrilaren 11koa da

Udalbatzak txostena aztertu ondoren, dagokion katastro aldaketak egin daitezkeen erabaki du aho batez, beti ere Nafarroako Gobernuko Herrilurretako Sekzioak egin duen txostenaren arabera.

5.-2017 URTERAKO GOIZUETAKO UDALEKO ZINEGOTZIEN ORDAINSARIA.

Toki Entitateetako kideen Dedikazio eta lansariei buruz Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen legeko 75 artikuluan xedatutakoarekin eta Toki Entitateen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erreglamenduko 13 artikuluan xedatutakoarekin eta 18/2017 Foru Legearen 13 artikuluekin bat eginez.

Goizuetako Udalbatzak, honako akordioa hartu du aho batez:

1.2018 urterako, zinegotzi bakoitzaren ordainsaria 87,59€ gordin onartzea, ohiko eta aparteko udalbatzatara etortzeagatik, beti ere 12 udalbatzetako gehieneko mugarekin. Zenbateko honi legeak agindutako atxikipenak aplikatuko zaizkio, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga dela eta.

2.Orobat, beren karguan aritzegatik dieta eta joan etorriengatik sortzen diren gastuak ordainduko zaizkie zinegotziei, horiek frogatu eta behar diren ordainagiriak aurkeztu ondoren

3. Akordio honek eragina izango du, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera eta urtero berretsi beharko da.

4. Udaleko oholean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarki hau argitaratzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen uztailaren 2ko 7/1985 legeko 75.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

6.-2017 URTERAKO GOIZUETAKO UDALEKO ALKATEAREN ORDAINSARIA

Toki Entitateetako kideen Dedikazio eta lansariei buruz Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen legeko 75 artikuluan xedatutakoarekin eta Toki Entitateen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erreglamenduko 13 artikuluan xedatutakoarekin eta 18/2017 Foru Legearen 13 artikuluekin bat eginez.

Goizuetako Udalbatzak, honako akordioa onartu zuen aho batez:

1. 2018 urterako Alkatearen ordainsari eta dedikazioa onartzea. Urteko ordainsari gordina 11.495,81 euro izango dira. Kantitate honetan aparteko ordainsarien batezbestekoa sartua dago eta legezko atxikipenak egingo zaizkio. Era berean sartua egonen da Udalak bere kargu egingo duen Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuota enpresariala. Dedikazioa partziala izango da, egunean 2 ordukoa, eta ondorioz astean 10 orduz Alkatearen funtzioak egitea ezartzen da, beharrezko dedikazio gutxienezkoa.

2.Orobat, bere karguan aritzeagatik dieta eta joan etorriengatik sortzen diren gastuak ordainduko zaizkio alkateari, horiek frogatu eta behar diren ordainagiriak aurkeztu ondoren

3. Akordio honek eragina izango du, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera eta urtero berretsi beharko da.

4. Udaleko oholean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarki hau argitaratzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen uztailaren 2ko 7/1985 legeko 75.5 artikuluan xedatutakoaren arabera

7.-2018KO UDAL AURREKONTUA ETA HAREN EXEKUZIO OINARRIAK, PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANGILEGOAREN ZERRENDA. HASIERAKO ONARPENA

Udalbatzari, 2018ko aurrekontua eta haren exekuzio oinarriak aurkezten zaizkio. Aldi berean plantilla organikoa eta langileen zerrenda izendatua ere aurkezten zaio

Udalbatzak aho batez erabaki du, 2018 urteko ekitaldi ekonomikorako aurrekontu orokor eta bakarra, exekuzio oinarriak eta udaleko plantilla organikoa eta langileen zerrenda izendatua onartzea

Jendaurreko epea iraganik erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betikoz onetsita joko dira

Uztailaren 2ko 6/1.990 Foru Legearen 271 eta 236 artikuluetan ezarritakoa betez, espedientea jendaurrean jarriko da, udaleko idazkaritzan, hamabost egun balioduneko epean, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, herritar eta interesatuek azter dezaten eta egoki juzgatzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten.

8.- NEKAZARITZA POLITIKA ERKIDEAREKIN (PAC) ERLAZIONATUTAKO HERRI LURREN APROBETXAMENDUA ESKATU DUTEN ESKATZAILEEN ZERRENDA: BEHIN BEHINEKO ONARPENA

Kontutan izanik, 2017ko abenduaren 19ko udalbatzan, erabaki zen Udalaren herrilurretako aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantzaren 30 garren artikulua agintzen duenaren arabera, 15 egun balioduneko epe irekiera, urtarrilaren 23 bitartean, intereseko duenak herrilurretako larreen aprobetxamendua eskatu ahal izateko.

Kontutan izanik Goizuetako Udalaren herrilurretako aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantzaren 32 eta 33 artikulua agintzen duena

Goizuetako Udalak aho batez erabaki du:

1.-Herri Lurren Aprobetxamendua eskatu duten eskatzaileen zerrenda behin behineko onartzea, baita esleitu beharreko aprobetxamendua eta haren kokapena ere, ondoren zehazten den moduan

2.-Behin behineko zerrenda Udalaren iragarki taulan argitaratzea, 15 egun balioduneko epean, egoki juzgatzen diren alegazioak aurkez daitezten. Alegaziorik ez balego, behin behineko zerrenda behin betikoa bihurtuko da.

Alegazioak edo ta akats zuzenketak egon ezker, ebatzi egingo dira, eta aprobetxamenduen nahiz haien esleipendunen behin betiko zerrendak onetsiko dira, baita haien kokapena ere

ONARTUEN ZERRENDA

DNI	IZEN ABIZENAK	Polig.	Partz	Rez	Hektareak
72546585-P	ALBISU SANCHEZ, ANXO 160	1	15	1	4,59
		1	21	1	1,32
		1	21	2	0,22
		1	21	4	30,3
		1	21	20	2,16
		1	24	1	0,6
		1	21	16	1,91
		1	30	1	9,23
		1	30	2	0,19
		2	234	1	1,34
		2	235	1	2,47
		2	237	1	3,03
		2	351	1	25,04
		2	251	1	0,66
		2	251	2	0,33
		2	251	3	0,52
		2	334	1	1,93
		2	334	2	2,58
		2	336	2	1,16
		2	336	3	0,96
		2	350	2	1,95
		2	350	3	0,63
		2	381	1	17,12
		3	128	1	1,63
		3	128	3	10,64
		3	131	1	4,78
		3	132	1	0,98
		3	132	2	0,27
		3	135	1	0,71
		3	135	2	9
		3	135	3	0,66

		3	136	1	21,09
44616170-B	ELIZALDE USARRAGA, JUAN JOSE 175	1	31	1	20,64
		1	31	2	9,48
		1	31	3	1,6
		1	31	4	1,1
		1	31	5	0,56
		1	32	7	0,86
		2	51	1	2,14
		7	70	1	18,02
		7	70	2	2,87
		1	21	3	82,19
		1	17	1	35,54
15860322-M	HUICI LUJAMBIO, MARTIN 3	6	38	1	2,13
		6	38	2	0,87
44152303-P	ZUBIETA URIA, JOSE RAMON 61,95	6	38	1	61
		4	479	1	0,95
15894300-N	APECECHEA AROCENA, LUIS	99	997		1,61
15256151-K	APECECHEA LUJAMBIO, MARIA	99	997		120
15969494-L	APECECHEA SALAVERRIA, M ^a SOLEDAD	99	997		5,2
15902442-N	APEZETXEA AROZENA, JESUS MARI	99	997		20
34096423-G	APEZETXEA PERURENA, BEGOÑA	99	997		35,9
44640834-L	AROCENA ALMANDOZ, JULEN	99	997		2,12
34095281-N	AROCENA LOYARTE, JUAN	99	997		43,31
72655706-V	ECHEGUIA CESTAU, JUAN ANTONIO	99	997		1,58
15862272-T	ECHENIQUE HUICI, JULIAN	99	997		20
15914342-K	ECHEVERRIA HUICI, MARIA JESUS	99	997		20,9
15860497-L	ELICEGUI LUJAMBIO, AGUSTIN	99	997		1,61
15860601-T	ELIZALDE ALSUA, ANTONIO	99	997		1
44616170-B	ELIZALDE USARRAGA, JUAN JOSE	99	997		174
15860515-Z	ESCUDERO HUICI, LAZARO	99	997		4,44
15959168-C	ESCUDERO LOYARTE, PABLO	99	997		16
72618972-Z	ESCUDERO MICHELENA, MARIA DOLORES	99	997		0,1
72661082-B	ESCUDERO ZUBELDIA, MILAGROS	99	997		7,53
15789589-C	EZCURRA ETXEKOLENEA, MARIA CARMEN	99	997		44,5
15987959-S	GAMIO SALAVERRIA, ARANTXA	99	997		1
E31688179	GAZTAOTZA, SDAD APEZETXEA Y OTROS	99	997		70,02
34083916-D	GOIZUETA GOIZUETA, LUCIA	99	997		10
15860570-T	HUICI LUJAMBIO, JOSE RAMON	99	997		1,61
15939208-R	HUICI PERURENA, FRANCISCO	99	997		17,86
72618962-G	JAUNARENA ZOZAYA, MARIA DOLORES	99	997		5,88
15860203-R	LEGARRETA ESCUDERO, MANUEL	99	997		1
15912963-E	LOIARTE IRIBARREN, JOKIN	99	997		7,75

34080879-P	LOIARTE LUKANBIO, MANUEL MARIA	99	997		2
15941490-Y	LOYARTE AROCENA, JESUS	99	997		18,5
15861909-M	LOYARTE AROCENA, JUAN FERMIN	99	997		22,4
15945477-Z	LOYARTE LUJAMBIO, ANA MARIA	99	997		1,61
15899088-Q	LOYARTE NOLASHOYAS, JOSE M.	99	997		10,55
15898880-G	MUTUBERRIA HUICI, JUAN	99	997		5,67
15894895-D	NARVARTE LOYARTE, DANIEL	99	997		1,61
15862281-D	NARVARTE LOYARTE, JOSE M.	99	997		5,51
44129715-Y	NAVARRO UNCHALO, AGUSTIN	99	997		5,8
72439802-Z	OYARZABAL ZUBELDIA, ARANTXA	99	997		18,95
15997747-M	PERURENA ALTAMIRA, M.CARMEN	99	997		5,29
15976607-W	PERURENA ECHEVERRIA, ISAAC	99	997		2,7
72679921-J	PERURENA GOIZUETA, M ^a PILAR	99	997		140
72679923-S	PERURENA GRACIARENA, MIKEL	99	997		7,5
72655719-F	PERURENA INCHAUSPE, ANTONIA	99	997		7,86
15860733-W	SALABERRIA ZUBIRI, JOSE MARIA	99	997		2,11
72659378-D	VERGARA MIHURA, JUANA MARI	99	997		10,12
15841581-D	VILLABONA SARALEGUI, CONCEPCION	99	997		2
72475220-N	ZABALA GOIZUETA, MARI JOSE	99	997		45
15860795-H	ZUBIRI ARRIBILLAGA, SAGRARIO	99	997		14,81
72618949-Z	ZUBIRI LOYARTE, PEDRO	99	997		22,61
72655701-N	ZUBIRI LOYARTE, TIBURCIO	99	997		10,87
72667219-F	ZUGARRAMURDI AIZPURU, LUIS VALENTIN	99	997		2
15922592-Z	ZUGARRAMURDI CESTAU, JOSE MIGUEL	99	997		8,69

BAZTERTUTAKOEN ZERRENDA

Ez dago baztertutako eskaerarik

Eskatutako partzelen azalera kopurua	Behin behinekoz onartu eta esleitutako partzela kopurua
1.410,2 hektarea	1.410,2 hektarea

9.- ERAKUNDE DESBERDINETAKO UDAL ORDEZKARIEN IZENDAPENAK:IZENDAPEN ALDAKETAK

Joan den 2015 eko ekainaren 30ean ospatutako udalbilkuran, Goizuetako Udaltzako, erakunde desberdinetako udal ordezkarien izendapenak egin zituen, besteen artean, Udal Euskaldunen Mankomunitateko, Euskara Kudeatzeko Iparraldeko Mankomunitatearen eta Leitza-Goizuetako-Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuko Mankomunitateko, ordezkarien izendapenak egin zituen, Zuriñe Zabala Lujambio, titular eta ordezkari izendatuz hurrenez hurren.

Zuriñe Lujambio Zabalak, dimisio idatzia aurkeztu zuen udal honetan, 2017ko ekainean, zinegotzi kargua uzten zuela adieraziz.

Egitate hau kontutan izanik, udalbatzak aho batez erabaki du, Zuriñe Lujambio Zabala ordezkari zen Mankomunitateetako izendapen berriak egitea, izendapen berriak ondorengo moduan zehazten direlarik:

Udal Euskaldunen Mankomunitateko titularra: Unai Loiarte Ansa

Euskara Kudeatzeko Iparraldeko Mankomunitateko titularra: Itsaso Lujanbio Apezetxea

Oinarrizko Gizarte Zerbitzu Mankomunitateko ordezkoa: Daniel Oyarzabal Larraburu.

10.- GOIZUETAKO ZENBAIT ERAIKIN PUBLIKOEN GARBIKETA ASISTENTZIA LANAK EGITEKO ESLEIPEN PROZEDURARI HASIERA EMATEA ETA KONTRATUA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA PLEGUA ONARTZEA

Goizuetako Udalak, 2015eko martxoan esleitu zuen, Herriko Etxea, Zubimuxu aterpetxea eta medikuaren kontsultorio berria eta zaharraren garbiketa asistentzia kontratua. Kontratu hau urte baterako esleitu zen beste 3 urtez luzatzeko aukerarekin.

2016ko martxoan lehengo luzapena egin zen, 2017ko martxoan arte; eta 2017ko martxoan bigarren luzapena egin zen, 2018ko martxoan arte.

Goizuetako Udalak, asistentzia kontratuaren objektua aldatu egin nahi du, objektu berria, Herriko Etxea, Osasun Etxea eta Guardiako osasun langilearen apartamentua eta Gizarte Zerbitzuetako bulegoa da. Kontratuaren objektua aldatzearekin, ezinezkoa da 2015eko kontratuari hirugarren eta azkeneko luzapena egitea, hortaz, kontratazio prozedura berria egin beharra dauka,

Guzti hau kontutan izanik, udalbatzak aho batez erabaki du:

-Goizuetako Udalaren eraikin publikoen garbiketa (Herriko Etxea, Osasun Etxea, Guardiako osasun langilearen apartamentua eta Gizarte Zerbitzuetako bulegoa) asistentzia kontratazioa esleitzeko prozedura irekiari hasiera emate eta kontratazio hau arautzen duten baldintza administratibo eta teknikoaren pleguak onartzea.

-Dagokion jakinarazpena egitea, egungo garbiketa asistentzia kontratudunari

11.-KARMELO LABAKA LHII IKASTETXEA. LANTOKIKO PRESTAKUNTZA MODULUA GARATZEKO, EMPRESA-IKASTETXEAREN ARTEKO LANKIDETZA AKORDIOAREN ONARPENA.

Karmelo Labaka LHII Ikastetxetik Goizueta Udalarari proposatu zaio, eskola honetako ikasle batek Goizuetako Udalean praktikak egitea 2018ko otsailaren 28tik maiatzaren 16 ra. Ikasle hau Aizpea Lujambio Otaño da eta goi mailako "Animazio Soziokulturala eta Turistikoa" modulua ikasten ari da.

Praktika hauek egiteko Karmelo Labaka LHII Ikastetxetik ondorengo dokumentazioa jaso da Goizuetako Udalean:

-Lantokiko Prestakuntza-Modulua garatzeko, enpresa-ikastetxearen arteko Lankidetzak-Akordioa.

-Ze ikaslek egingo dituen praktikak ziurtatzen duen agiria eta istripu eta erantzukizun zibileko aseguruak

-Ikastetxe, Lantoki eta Praktiketako ikasle, eta praktiken zehaztapena agertzen duen agiria

Guzti hau kontutan izanik, Goizuetako Udalbatzak aho batez erabaki du:

1.- Lantokiko Prestakuntza-Modulua garatzeko, enpresa-ikastetxearen arteko Lankidetzak-Akordioa onartzea.

2.-Maria Pilar Apecechea Elizalde, Goizuetako Udaleko zinegotzi dena, praktika hauen arduradun izendatzea.

12.-ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: TRANSGENIKORIK GABEKO EREMUA" IZENDATU, GLIFOSATOEN ERABILERA DEBEKATU ETA GERTUKO ETA PRODUKTU EKOLOGIKOEN ALDE BORROKATZEKO

Goizuetako Alkateak, Goizuetako Udalerria "Transgenikorik gabeko eremua deklaratzeko adierazpen instituzionala aurkeztu dio Udalbatzari honek onartu dezan.

Udalbatzak aho batez adierazpen instituzionala onartu du, ondoren zehazten den moduan:

1.-Goizuetako Udalerria "Transgenikorik gabeko eremua" deklaratzeko da.

2.-Udal honek bere eskumenekoak diren esparruetan glifosatoa erabiltzeari utziko dio. Besteak beste, parkeetan, lorategietan, baratza publikoetan, errepide eta bideen kontserbazioan.

3.-Udal honek eskumena duen establezimenduetan (Ikastetxeak, egoitzak, administrazio publikoak, ekitaldi publikoak eta jaiak, jantoki sozialak,

ospitalea edo osasun zentroa...) ekoizpen ekologikoa tinko sustatu eta tokian tokiko produktu ekologikoen aldeko kontsumoa progresiboki bultzatzeko konpromisoa hartzen du.

4.-Halaber, adierazpena honako hauei aditzera ematea erabakitzen du:

-Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa

-Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentua.

-Udalerrien Mankomunitatea, Garapenerako Partzuergoak, udalerrri elkartuak edo ekimenean interesa izan dezaketen bestelako erakundeak.

5.-Prozesu honetan ezinbestekotzat jotzen dugu hiritarrak jakitun izatea hartutako erabakiaz, bereziki nekazaritza arloko pertsonak. Prentsaurreko, informazio hitzaldi eta abarren bitartez.

6.-Modu berean erabakiaren berri emanen zaie sinatzaile guztiei, ekimen honi gehitzen zaion udalerrien zerrenda eguneratua egon dadin.

Horretarako adierazpena posta honetara helaraziko da: lantxurdataldea@gmail.com

13.-MOZIOA:TORTURA IKERTU ETA LANTZEAREN ALDEKOA

Goizuetako Alkateak, honako mozioa aurkeztu dio Udalbatzari honek onartu dezan.

“MOZIOA

ZIOEN AZALPENA.

Urte luzez iluntasunera baztertutako errealitatea izan da torturarena. Zorionez, azkenaldian urrats batzuk ematen ari dira iluntasun horretan argia eramaten hasteko. Hain zuzen ere, iragan abenduan argitaratu zen EAE 1960-2014 bitartean izandako tortura eta tratu txarren inguruko txostena, Paco Etxeberriak gidatutako taldeak egin duen ikerketa-proiektuaren ondorioz. Erabateko seriotasunez, profesionaltasunez eta metodo zientifikoz egin den azterketan 4.113 tortura kasu eman dituzte frogatuztat.

Aztertutako espediente guztien artean 292 nafar herritarren ingurukoak dira, baina hauek proiektutik kanpo geratu dira, lana EAE-ko kasuetara mugatu baita. Edozein modutan, azpimarratzekoa da txosten honen dimentsioa, agerian uzten baitu hamarkadetan zehar presente izan den errealitatea izen dela, sistematikoa izan dela, eta erabateko inpunitateak inguratu duela.

Nafarroako instituzio gehienetan ere isiltasuna izan da nagusi orain arte, baina urrats batzuk ematen hasiak dira. Hain zuzen ere, Nafar Gobernuak irailaren 12ko

35E/2017 Foru Aginduan dirulaguntza deialdi bat argitaratu zuen eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako giza eskubideen urraketak dokumentatzeko. Deialdi horretara aurkeztutako proiektuen artean EHUko Paco Etxeberriaren taldearena izan da, zehazki, Nafarroan tortura kasuak ikertzeko laguntza eskuratu duena.

Giza eskubideen urraketak pairatu dituzten pertsona guztiek egia, aitortza eta erreparaziorako eskubidea dutela aintzat hartuta, torturaren arloan bide luzea dago egiteke. Nafarroan, zehazki, ehunkada tortura kasu salatu dira hamarkada luzeetan, eta Espainiar Estatua hiru aldiz zigortu du Estrasburgoko Giza Eskubideetako Auzitegiak nafar herritarren tortura salaketak ez ikertzeagatik, Patxi Arratibel, Xabier Beortegi eta Ohian Ataunen Kasuetan, hain zuzen ere. Bada garaia pertsona hauen guztien eskubidek bermatzeko instituzioek duten ardurari heltzeko.

Hau guztia dela eta, honako ebazpena onartu du Goizuetako Udalak:

1.-Goizuetako Udalak tortura kasuak ikertzeko eta azaleratzeko beharra agertzen du eta tortura pairatu duten herritarrei elkartasuna eta babesa azaltzen die. Era berean, egia, aitortza eta erreparaziorako daukaten eskubidean laguntzeko bere prestutasuna agertzen du Udal honek

2.-Goizuetako Udalak Nafar Gobernuari eskatzen dio torturaren gaia azaleratzen eta biktimak erreparatzen laguntzeko bere esku dagoen guztia egin dezan, eta bide horretan egiten ari den eta eginen dituen urratsei babesa ematen die.

Hartara, torturak dokumentatzeko egitasmoaren garrantzia eta beharra azpimarratzen du”.

Udalbatzak aho batez mozioa onartu du.

14.-ALKATEAREN EBAZPENAK

Alkatearen ebazpenen berri ematen du Alkateak, **2017-177tik 183era** bitarteko eta **2018-01etik 012ra** zenbakia duten alkatearen ebazpenak dira. Udalbatza jakitun gelditzen da eta aho batez berretsi egiten ditu

177 zenbakia: Eguberritan, tabernen ordutegiaren luzapena

178 zenbakia: Herriko Etxeko igogailuaren proiektua idatzi eta zuzentzeko asistentzia kontratua esleitzeko prozedura negoziatuaren hasiera

179 zenbakia: Luis Lujanbio Etxeberria, Herriko Etxea eta Artzegi Etxeen tarteko lurzorua gaineko katastro modifikazioaren ezeztapena

180 zenbakia: Angel Elicegui Lujambio, 3 poligonoko 169 partzelan matarrasa egiteko hasierako izapidetza

181 zenbakia: Lucia Larrechea Taberna, 2 poligonoko 357 partzelan matarrasa egiteko hasierako izapidetza

182 zenbakia: Maria Benita Loyarte Arribillaga, Itzala Etxearen fatxada margotzeko baimena

183 zenbakia: Zuriñe Lujambio Zabala, Loidinea Etxeko lehengo solairuko sukaldeko leiho gaina eta garajeko teilatuaren azpian mantenimendu obra lanak egiteko obra baimena

1 zenbakia:Maite Sanchez, urtarrilaren 11ean Batzar Aretoa erabiltzeko baimena

2 zenbakia: Pako Altzuri SL, Alkasoaldeko pista erabiltzeko baimena, mendi aprobetxamendua egiteko

3 zenbakia: Josefa Larrea Huarte, 2 poligonoko 304E, 336A eta 334D partzelan matarrasa egiteko hasierako izapidetza

4 zenbakia: Jose Ramon Huici Larrea, 4 poligonoko 390C partzelan matarrasa egiteko hasierako izapidetza

5 zenbakia: Julian Erasun Larrechea 8 poligonoko 2Q partzelan matarrasa egiteko hasierako izapidetza

6 zenbakia: Garazi Albisu Sanchez, urtarrilaren 19an Batzar Aretoa erabiltzeko baimena

7 zenbakia: Euskara Mankomunitatea, urtarrilaren 18an Batzar Aretoa erabiltzeko baimena

8 zenbakia: Pako Altzuri SL, Alkasoaldeko pista erabiltzeko baimena, mendi aprobetxamendua egiteko

9 zenbakia: Jaime Carrera Esteban, kaltegabeko jarduera sailkatu baimena, ardi bat jartzeko

10 zenbakia: Mari Jose Nolashoyas , kaltegabeko jarduera sailkatu baimena, behi bat jartzeko

11 zenbakia: Gemma Arratibel Garayar, 3 poligonoko 123 eta 162 partzelan matarrasa egiteko hasierako izapidetza

12 zenbakia: Idoia Legarreta Narbarteri, Herriko Etxeko igogailuaren proiektua idazteko eta zuzentzeko asistentzia kontratuaren esleipena

15.-ESKARI ETA GALDERAK

Alkateak eskari edo galderarik ba ote duten galdetzen die udalbatzako kideei. Galdera edo eskaririk egiten ez denez, arratsaldeko zortziak direnean alkateak bukatutzat eman du bilera, nik, Idazkariak ziurtatzen dut